

NOLA SAIHESTU ZARAKARRAK SORTZEA LURRAZALEAN



Pixabay

Urteko hilabete beroenetan lurrazala gogortua eta lehor-lehorra duten baratzeak topa ditzakegu tarteka. Honelako lurrek ez diete landareei behar bezala hazten uzten. Zer egin dezakegu egoera honetara ez iristeko?

LURREN EGITURAREN GARRANTZIA



Egitura ona duten lurrak agregatuz osatuak izaten dira. Agregatuak hondarra, lohia, buztina eta materia organikozko partikulak elkartzen direnean osatzen dituzten bolatxoak dira. Agregatuen partikulen arteko lotura zenbat eta indartsuago izan, orduan eta lur hobeak izango dugu, egitura, porositatea eta iragazkortasuna hobeak izango baitu lurrak.

NOLA SORTZEN DA ZARAKARRA LURREAN?

Landaririk gabeko lur gorri baten gainera ura erortzen denean, ureztaketako ur tanten edo euri uren tanten indarraren eraginez, lurreko agregatuak desegin eta apurtzen dira.

Agregatuak haustean, partikulak sakabanatzen dira, eta txikienek lurreko poroak itotzen dituzte, lurra trinkotuz eta gero eta iragazgaitzagoa bihurtuz.

Ereintzaren ondoren gerta daiteke aipatutakoa, landareen garapenaren lehenengo fasetan, lurrazala oraindik estali gabe dagoenean alegia, edo landu berri diren lurretan. Eta, bereziki, buztin- edo lohi-portzentaje handiko lurretan.

Hauek dira poroak ixtearen ondorioak:

- Lurraren porositatea gero eta txikiagoa bihurtzen da, eta ondorioz, aireak eta urak gero eta zailtasun handiagoak dituzte lurrean sartzeko (biek dira behar-beharrezkoak landareentzat).
- Ura lurrazalean metatzen da, putzuak sortuz.
- Beroaren eraginez, azaleko ura lurrundu eta zarakar gogorrak sortzen dira lurrazalean.

LANDAREETAN ZARAKARRAK DITUEN ONDORIOAK

- Ereintzak hondatu daitezke, izan ere, zenbaitetan lurpean ipindutako hazietatik sortutako landaretxoek ezin dute zarakarra puskatu eta kimu berria kanpora atera beharrean, lurpean bertan hiltzen dira.
- Batzuetan, landareak ez dira egoki hazten, lepoak lurrazaleko zarakar lehorrak itotzen baititu.

NOLA SAIHESTU LURREAN ZARAKARRAK SORTZEA?

- Materia organikoa eman lurrari, agregatuen egonkortasuna hobetzeko. Erabili daiteke konposta, lurrustela edo simaurra adibidez.
- Ahal den neurrian, lurra estalita eduki beti. Horretarako:
 - Landareak elkartu daitezke: tomatea letxugarekin; letxuga errefautxoarekin; edota azenarioa porruarekin, adibidez.
 - Lurra material organikoren batekin estali daiteke, lastoa erabiliz, orbela, e.a.
- Lurra maizegi lantzea saihestu behar da.
- Landare-eremuak zapaltzea ere saihestea komeni da.